BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

Academia Vasca de Policía y Emergencias/Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Erakunde Autonomoaren euskararen erabilera normalizatzeko planaren baitan kudeaketa lanak egiteko aholkularitza kontratua gauzatzea.

1. Kontratuaren xedea

PLEAko Zuzendaritzak enpresa espezializatu baten aholkularitza zerbitzua kontratatu nahi du Akademian, Euskararen Erabilera Planaren kudeaketan laguntza emateko eta Plan berriaren diseinuan laguntzeko.

2. Gauzatu beharreko prestazioak

Akademiako Zuzendaritzak enpresa bat kontratatu nahi du, Hizkuntza Normalkuntzako Zerbitzuari aholkularitza teknikoa eta laguntza emateko, bai planean jasotako ekintzak ezartzeko, bai plana ebaluatzeko, bai 2023-2027 aldirako aurreikusitako hurrengo plana diseinatzeko.

Enpresa esleipendunak aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko du, Akademiako Hizkuntza Normalkuntza Zerbitzuaren gidaritzapean. Era berean, enpresa esleipendunak Akademiaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana aztertuko du, kudeaketa plana diseinatu eta inplementatzeko eginkizunei aurre egiteko aholkularitza eta laguntza eskainiko du.

Horrela, planak Akademian behar duen ezarpen egokia bermatze aldera, enpresa esleipendunak Hizkuntzaren Normalkuntzako Zerbitzuari zuzeneko asistentzia eskainiko dio; izan ere, enpresa esleipendunak laguntza teknikoa eskainiko dio Atal horri Akademian Euskararen Erabilera Planaren kudeaketa inplementatzeko egingo den prozesuan zehar.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

Dentro del plan para normalizar el uso del euskera en el Organismo Autónomo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia/Academia Vasca de Policía y Emergencias se precisa contratar la asesoría para la gestión del mismo.

1. Objeto del contrato

La Dirección de la AVPE quiere contratar los servicios de asesoría de una empresa especializada para dar apoyo en la gestión de Plan de Uso del Euskera en la Academia y en el diseño de un nuevo plan.

2. Prestaciones a llevar a cabo

La Dirección de la Academia quiere contratar una empresa que dé al Servicio de Normalización Lingüística el oportuno asesoramiento técnico y apoyo, tanto en la implementación de las acciones contempladas en el plan como en la evaluación del mismo y en el diseño del próximo plan previsto para el período 2023-2027.

La empresa adjudicataria ofrecerá apoyo técnico bajo la supervisión del Servicio de Normalización Lingüística de la Academia. En este orden de cosas, la empresa adjudicataria analizará el Plan de Uso del Euskera en la Academia, diseñará un plan de actuación y ofrecerá asesoramiento técnico a las actuaciones de desarrollo del citado plan.

De esta forma, y al objeto de garantizar la adecuada implantación del plan en la Academia, la empresa adjudicataria ofrecerá asistencia directa al Servicio de Normalización Lingüística. En este orden de cosas, también dará al citado Servicio apoyo técnico en el proceso de implementación de la gestión del Plan de Uso del Euskera en la Academia.

Euskararen Erabilera Planak, PLEAn, helburu eta neurri zehatzak ezartzen ditu, besteak beste, euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatu eta lan- hizkuntza gisa hedatu dadin. Hori kontuan hartuta, Akademian gauzatzen diren ekintza guztiak bideratu nahi dira helburu horiekin lerrokatuko diren ekimen planifikatuetara. Enpresa esleipendunak horretarako beharko den aholkularitza teknikoa emango du.

El Plan de Uso del Euskera en la AVPE establece objetivos y medidas concretas para, entre otras cosas, garantizar el euskera como lengua de servicio y difundirlo como lengua de trabajo. Teniendo esto en cuenta, se pretende orientar todas las acciones que se llevan a cabo en la Academia hacia iniciativas planificadas que se alineen con estos objetivos. La empresa adjudicataria prestará el asesoramiento técnico necesario para ello.

Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza izan dadin helburuari jarraiki, enpresa esleipendunak aholkua emango dio Normalkuntza Zerbitzuari, eta esku-hartze zehatzak diseinatuko eta inplementatuko ditu Akademian, horretarako beharrezkoak diren dinamikak abian jarriz eta ekintza osagarriak antolatuz Normalkuntza Zerbitzuarekin batera.

Siguiendo con el objetivo de que el euskera sea lengua de trabajo y de servicio, la empresa adjudicataria asesorará al Servicio de Normalización y diseñará e implementará intervenciones concretas en la Academia, poniendo en marcha las dinámicas necesarias para ello y organizando acciones complementarias junto con el Servicio de Normalización.

Halaber, enpresa esleipendunak aholkularitza emango du egindako jardueren ebaluazioa diseinatu eta emaitzen analisia egiterakoan, eta, horrekin batera, hurrengo plangintzari begirako neurri zuzentzaileak landuko ditu.

Así mismo, la empresa adjudicataria, ofrecerá asesoramiento en el diseño de la evaluación de las actuaciones desarrolladas y en el análisis de los resultados, y junto con esto, propondrá medidas correctoras y de mejora para el próximo periodo de planificación.

3. Lantaldea

3. Grupo de trabajo

Lan horren prestazioa enpresa esleipendunak izendatutako hizkuntza-aholkuari edo teknikari-aholkuari batek emango du, PLEAko Erabilera Plan Berria diseinatzen eta garatzen lagunduko diona PLEAko Hizkuntzaren Normalkuntza Zerbitzuko teknikariari. Kontratua garatzen den neurrian, lanean hasten den teknikari berdinak amaitu beharko du aholkularitza lana, ezinbestean eragindako kasuetan izan ezik.

La prestación de este trabajo se realizará por una persona asesora lingüística o técnica designada por la empresa adjudicataria que ayude a la persona técnica del Servicio de Normalización Lingüística de AVPE en el diseño y desarrollo del Nuevo Plan de Uso de la AVPE. En la medida en que se desarrolle el contrato, el asesoramiento deberá finalizar por la misma persona que se incorpore, salvo en los casos de fuerza mayor.

Halaber, lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

Así mismo, será competencia de la empresa adjudicataria cumplir con los requisitos establecidos en el campo de la prevención laboral.

Era berean, enpresa esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:
• Produkzio eta antolaketa propioa izatea, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.
• Enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak bere gain hartzea.

Igualmente, la empresa adjudicataria cumplirá con los siguientes requisitos:
• Contar con producción y organización propias, contar con suficientes recursos humanos y materiales, y emplear dichos recursos en el desarrollo de la presente contratación.
• Asumir los riesgos, requisitos y responsabilidades derivados del desarrollo de la gestión de la empresa.

4. Lantokia

Kontratuaren zeregin guztiak enpresa esleipendunak horretarako aurreikusi dituen lokaletan egingo dira, eta gutxienez, astean egun bateko presentzia bermatu beharko du Akademian.

4. Centro de trabajo

Todas las tareas del contrato se realizarán en los locales previstos al efecto por la empresa adjudicataria, debiendo garantizar una presencia mínima de un día a la semana en la Academia.

5. Langilearekin laneko lotura eza

Segurtasun Saileko PLEAko Zuzendaritzak ez du inolako laneko loturarik izango langile horrekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.

Horrenbestez, PLEAko Zuzendaritzak ez du inolako erantzukizunik izango hirugarrenei eragindako kalteengatik, enpresa esleipendunaren legezko ordezkarien, enpresako kolaboratzaileen edo zerbitzu ematen diotenen ekintzen edo omisioen ondorioz.

5. No vinculación laboral de la persona trabajadora

La Dirección de la AVPE del Departamento de Seguridad no tendrá ninguna vinculación laboral con esta persona, ni durante ni después de la vigencia del contrato.

Por tanto, la Dirección de la AVPE, como consecuencia de acciones u omisiones de representantes legales, colaboradores o de quienes den servicio a la empresa contratada no tendrá ninguna responsabilidad por daños a terceros.

6.- Lanen jarraipena

Plegu tekniko hauetako bigarren puntuan gauzatu beharreko prestazioei buruz xedatuta dagoenaren arabera, enpresa esleipendunari dagokio kontratu honen xede diren lanak ondo egiteko langilea izendatzea. Hala ere, enpresa esleipen-dunak bermatu beharko du bete egiten dela Akademiako Hizkuntzaren Normal-kuntzako Zerbitzuak eskatutakoaren arabera hitzartutako lan-egutegia.

6. Seguimiento de los trabajos

En lo referente a las prestaciones a llevar a cabo establecidas en el punto dos del presente pliego técnico, le corresponde a la empresa contratada nombrar a quienes realizarán los cometidos establecidos. Igualmente, dicha empresa garantizará el cumplimiento del calendario de trabajo establecido por el Servicio Normalización Lingüística de la Academia.

Aipatutako zerbitzua lanerako kronogramaren zehaztutako zeregin bakoitzaren eraginkortasunaren, efizientziaren eta kalitate-mailaren jarraipen prozesuaz arduratuko da, kontsulta-aldiak iraun bitartean helburuak eta kalitate-irizpideak betetzen direla bermatzeko.

A su vez, este Servicio será el que realice el proceso de seguimiento de la eficacia, eficiencia y calidad de cada una de las medidas abordadas, para de esta forma poder garantizar durante el periodo de consultas el cumplimiento de los objetivos y de los criterios de calidad.

Aldi berean, Hizkuntzaren Normalkuntzako Zerbitzuari dagokio ziurtatzea lanak behar bezala egingo direla, eta baita egin beharreko lanen kalitate-maila kontrolatzea ere.

También corresponde a este Servicio de Normalización Lingüística garantizar que los trabajos se desarrollan correctamente y el control del nivel de calidad de los trabajos realizados.

Bestalde, enpresa esleipendunak lan guztien koordinazioa eta jarraipena egingo du. Era berean, lan-prozesuen koherentzia zainduko du, eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak erabiliz, eta uneoro erantzungo die PLEAko Zuzendaritzako Hizkuntzaren Normalkuntzako Zerbitzuaren beharrei.

Por otro lado, la empresa contratada realizará la coordinación y seguimiento de los trabajos y cuidará la coherencia de los procesos de trabajo, para lo que empleará criterios de eficacia y eficiencia respondiendo a cada requerimiento del Servicio de Normalización Lingüística de la Academia.

Arkautin,

JOSE RAMON RODRIGUEZ MARTIN - 07838378R

Firmado digitalmente por JOSE RAMON RODRIGUEZ MARTIN - 07838378R
Fecha: 2023.02.03 09:51:39 +01'00'

Sin.: Kontratazio eta Aurrekontuen Arloko burua
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia